

Convención Internacional para la protección de todas las personas contra las desapariciones forzadas

Preámbulo

Los Estados Partes en la presente Convención,

Considerando que la Carta de las Naciones Unidas impone a los Estados la obligación de promover el respeto universal y efectivo de los derechos humanos y libertades fundamentales,

Teniendo en cuenta la Declaración Universal de Derechos Humanos,

Recordando el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos y los otros instrumentos internacionales pertinentes de derechos humanos, del derecho humanitario y del derecho penal internacional,

Recordando también la Declaración sobre la protección de todas las personas contra las desapariciones forzadas, aprobada por la Asamblea General de las Naciones Unidas en su resolución 47/133, de 18 de diciembre de 1992,

Conscientes de la extrema gravedad de la desaparición forzada, que constituye un delito y, en determinadas circunstancias definidas por el derecho internacional, un crimen de lesa humanidad,

Decididos a prevenir las desapariciones forzadas y a luchar contra la impunidad en lo que respecta al delito de desaparición forzada,

Teniendo presentes el derecho de toda persona a no ser sometida a una desaparición forzada y el derecho de las víctimas a la justicia y a la reparación,

Afirmando el derecho a conocer la verdad sobre las circunstancias de una desaparición forzada y la suerte de la persona desaparecida, así como el respeto del derecho a la libertad de buscar, recibir y difundir informaciones a este fin,

Derrigorreko desagertzeen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa

Atariko

Konbentzio honetako estatu alderdiek,

Kontuan harturik, Nazio Batuen Gutunak estatuei betebeharra ezarri diela, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala eta eragingarria sustatzeko,

Aintzat hartuz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala,

Gogoraturik, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta giza eskubideei, zuzenbide humanitarioari eta nazioarteko zigor-zuzenbideari buruzko beste agiri garrantzitsuak,

Gogoraturik, halaber, pertsona guztiak derrigorreko desagertzeen aurka babesteari buruzko Adierazpena, Nazio Batuetako Biltzar Orokorra onetsitakoa, 1992ko abenduaren 18ko 47/133 ebazpenean,

Jakitun izanik, derrigorreko desagertzea oso-oso larria dela, delitua den heinean eta, nazioarteko zuzenbideak definitutako zenbait inguruabarretan, gizateriaren aurkako krimena,

Erabakia harturik, derrigorreko desagertzeak prebenitzeko eta derrigorreko desagertzearen delituari dagokionez zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko,

Gogoan harturik, pertsona orok duen eskubidea, derrigorreko desagertzerik ez pairatzeko eta biktimen eskubidea, justizia eta konponketarako,

Adieraziz, egia jakiteko eskubidea, derrigorreko desagertze bati buruzko inguruabarren gainean eta desagertutako pertsonaren egoeraren gainean, bai eta helburu horrekin informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeari buruzko askatasunerako

Han convenido en los siguientes artículos:

Parte I

Artículo 1

Nadie será sometido a una desaparición forzada.

En ningún caso podrán invocarse circunstancias excepcionales tales como estado de guerra o amenaza de guerra, inestabilidad política interna o cualquier otra emergencia pública como justificación de la desaparición forzada.

Artículo 2

A los efectos de la presente Convención, se entenderá por «desaparición forzada» el arresto, la detención, el secuestro o cualquier otra forma de privación de libertad que sean obra de agentes del Estado o por personas o grupos de personas que actúan con la autorización, el apoyo o la aquiescencia del Estado, seguida de la negativa a reconocer dicha privación de libertad o del ocultamiento de la suerte o el paradero de la persona desaparecida, sustrayéndola a la protección de la ley.

Artículo 3

Los Estados Partes tomarán las medidas apropiadas para investigar sobre las conductas definidas en el artículo 2 que sean obra de personas o grupos de personas que actúen sin la autorización, el apoyo o la aquiescencia del Estado, y para procesar a los responsables.

Artículo 4

Cada Estado Parte tomará las medidas necesarias para que la desaparición forzada sea tipificada como delito en su legislación penal.

Artículo 5

La práctica generalizada o sistemática de la desaparición forzada constituye un crimen de lesa humanidad tal como está definido en el derecho internacional aplicable y entraña las consecuencias previstas por el derecho internacional aplicable.

eskubidearen errespetua ere,

Hitzartu dute, hurrengo artikuluetan:

I. Zatia

1. artikulua

Inork ez du pairatuko derrigorreko desagertzerik.

Derrigorreko desagertzea justifikatzeko inola ere ezin izango dira alegatu salbuespenezko inguruabarrak, hala nola, gerra-egoera edo gerra-mehatxua, estatu barneko ezegonkortasun politikoa edo beste edozein larrialdi publiko.

2. artikulua

Konbentzio honen ondoreetarako, «derrigorreko desagertzea» da, atzipenaldia, atxiloketa, bahiketa edo askatasunez gabetzeko beste edozein mota, baldin eta halakoak gauzatzen badituzte estatuko agenteek edo estatuaren baimen, babes edo oniritziarekin jarduten duten pertsonak edo pertsona-taldeek, eta horiek aitortzen ez badute desagertutako pertsonaren askatasun-gabetzea edo ezkututzen badute pertsona horrekin gertatu dena edo pertsona hori dagoen tokia, pertsona hori lege-babesetik at utziz.

3. artikulua

Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, 2. artikulua definitutako egintzak ikertzeko, halakoak gauzatzen dituztenean estatuaren baimen, babes edo oniritzirik gabe jarduten duten pertsonak edo pertsona-taldeek, eta arduradunak auzipetzeko.

4. artikulua

Estatu alderdi bakoitzak behar adina neurri hartuko du, derrigorreko desagertzea delitu gisa tipifika dadin bere zigor-legerian.

5. artikulua

Derrigorreko desagertzea modu orokor edo sistematikoan gauzatzen denean, gizateriaren aurkako krimena da, nazioarteko zuzenbide aplikagarrian definitutakoaren haritik, eta eginera horrek nazioarteko zuzenbide aplikagarrian jasotako ondoreak eratoritzen ditu.

Artículo 6

Los Estados Partes tomarán las medidas necesarias para considerar penalmente responsable por lo menos:

a) A toda persona que cometa, ordene, o induzca a la comisión de una desaparición forzada, intente cometerla, sea cómplice o participe en la misma;

b) Al superior que:

i) Haya tenido conocimiento de que los subordinados bajo su autoridad y control efectivos estaban cometiendo o se proponían cometer un delito de desaparición forzada, o haya conscientemente hecho caso omiso de información que lo indicase claramente;

ii) Haya ejercido su responsabilidad y control efectivos sobre las actividades con las que el delito de desaparición forzada guardaba relación; y

iii) No haya adoptado todas las medidas necesarias y razonables a su alcance para prevenir o reprimir que se cometiese una desaparición forzada, o para poner los hechos en conocimiento de las autoridades competentes a los efectos de su investigación y enjuiciamiento;

c) El inciso b) supra se entiende sin perjuicio de las normas de derecho internacional más estrictas en materia de responsabilidad exigibles a un jefe militar o al que actúe efectivamente como jefe militar.

Ninguna orden o instrucción de una autoridad pública, sea ésta civil, militar o de otra índole, puede ser invocada para justificar un delito de desaparición forzada.

Artículo 7

Los Estados Partes considerarán el delito de desaparición forzada punible con penas apropiadas, que tengan en cuenta su extrema gravedad.

Los Estados Partes podrán establecer:

6. artikulua

Estatu alderdiek behar adinako neurriak hartuko dituzte, erantzule penaltzat jotzeko gutxienez:

a) Derrigorreko desagertzea gauzatu, agindu edo induzitzen duen pertsona oro, derrigorreko desagertzea gauzatzen ahalegintzen den pertsona oro, derrigorreko desagertzearen konplizea den pertsona oro eta desagertze horretan parte hatzen duen pertsona oro;

b) Goragoko agintaria:

i) Agintari horrek baldin badaki bere agintaritza eta kontrol eragingarriaren mendekoak derrigorreko desagertzeari buruzko delitua egiten ari zirela edo mendeko horiek horretarako asmoa zutela, edo, hala nahita, ez badio jaramonik egin horren berri argiro eman zion informazioari;

ii) Agintari horrek bere ardura eta kontrol eragingarriak egikaritu baditu derrigorreko desagertzeari buruzko delituarekin zerikusia izan zuten jarduerak zein izan eta jarduera horien gainean; eta

iii) Agintari horrek ez baditu hartu bere esku dauden neurriak, behar bestekoak eta zentzuzkoak, derrigorreko desagertze bat gauzatzea prebenitu nahiz zigortzeko, edo agintari eskudunei egitateen berri emateko, horiek egitateok ikertu eta epai ditzaten;

c) Aurreko b) idatz-zatiak ez die kalterik egingo nazioarteko zuzenbideko araei, halakoak hertsia goak direnean, militar-buru bati edo militar-buru gisa eragingarritasunez jarduten duenari galdatzeko moduko erantzukizunen esparruan.

Derrigorreko desagertzeari buruzko delitua justifikatzeko ezin dira alegatu agintari publikoen agindu edo jarraibideak, agintari horiek zibilak, militarrek edo beste mota batekoak izan daitezkeela.

7. artikulua

Estatu alderdiek derrigorreko desagertzeari buruzko delitua zigor egokiekin zigortzeko modukotzat joko dute, delitu hori oso-oso larria dela kontuan harturik.

Estatu alderdiek ezarri ahal izango dituzte:

a) Circunstancias atenuantes, en particular para los que, habiendo sido partícipes en la comisión de una desaparición forzada, hayan contribuido efectivamente a la reaparición con vida de la persona desaparecida o hayan permitido esclarecer casos de desaparición forzada o identificar a los responsables de una desaparición forzada;

b) Sin perjuicio de otros procedimientos penales, circunstancias agravantes, especialmente en caso de deceso de la persona desaparecida, o para quienes sean culpables de la desaparición forzada de mujeres embarazadas, menores, personas con discapacidades u otras personas particularmente vulnerables.

Artículo 8

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 5,

Cada Estado Parte que aplique un régimen de prescripción a la desaparición forzada tomará las medidas necesarias para que el plazo de prescripción de la acción penal:

- a) Sea prolongado y proporcionado a la extrema gravedad de este delito;
- b) Se cuente a partir del momento en que cesa la desaparición forzada, habida cuenta del carácter continuo de este delito.

El Estado Parte garantizará a las víctimas de desaparición forzada el derecho a un recurso eficaz durante el plazo de prescripción.

Artículo 9

Cada Estado Parte dispondrá lo que sea necesario para instituir su jurisdicción sobre los delitos de desaparición forzada en los siguientes casos:

- a) Cuando los delitos se cometan en cualquier territorio bajo su jurisdicción o a bordo de una aeronave o un buque matriculados en ese Estado;
- b) Cuando el presunto autor del delito sea nacional de ese Estado;
- c) Cuando la persona desaparecida sea nacional de ese Estado y éste lo considere apropiado.

Cada Estado Parte tomará asimismo las

a) Inguruabar aringarriak, bereziki, derrigorreko desagertze bat gauzatzeari dagokionez partaide izan direnei begira, halakoek modu eragingarrian lagundu dutenean pertsona desagertuak bizirik aurkitzen, edo ahalbidetu dutenean derrigorreko desagertzeari buruzko kasuak argitzea nahiz derrigorreko desagertze baten arduradunak identifikatzea;

b) Bestelako prozedura penal batzuk gorabehera, inguruabar astungarriak, bereziki, pertsona desagertua hiltzen denean, edo derrigorreko desagertzearen errudun direnentzat, derrigorreko desagertze hori denean haurdun dauden emakumeei, adingabeei, desgai diren pertsoneri edo beste pertsona ahul batzuei dagokienez.

8. artikulua

5. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe,

Derrigorreko desagertzeari preskripzio-araubidea aplikatzen dioten estatu alderdiek beharrezko neurriak hartuko dituzte, akzio penalaren preskripzio-epea:

- a) Luzea eta delituaren izaera oso-oso larriarekin proportzionala izan dadin;
- b) Derrigorreko desagertzea bertan behera uzten denetik zenbatzen has dadin, delitu horren jarraikako izaera kontuan hartuta.

Estatu alderdiak derrigorreko desagertzearen biktimei errekurtsio eragingarrirako eskubidea bermatuko die preskripzio-epeak iraun bitartean.

9. artikulua

Estatu alderdi bakoitzak behar dena xedatuko du, bere jurisdikzioa ezartzeko derrigorreko desagertzeari buruzko delituaren gainean, hurrengo kasuetan:

- a) Delituak egiten direnean bere jurisdikziopeko edozein lurraldetan edo estatu horretan matrikulatutako aireontzi edo ontzi batean;
- b) Ustezko delitugilea estatu horretako nazionala denean;
- c) Desagertutako pertsona estatu horretako nazionala denean eta estatu horrek egokitzen jotzen duenean.

Estatu alderdi bakoitzak, orobat,

medidas necesarias para establecer su jurisdicción sobre los delitos de desaparición forzada en los casos en que el presunto autor se halle en cualquier territorio bajo su jurisdicción, salvo que dicho Estado lo extradite o lo entregue a otro Estado conforme a sus obligaciones internacionales, o lo transfiera a una jurisdicción penal internacional cuya competencia haya reconocido.

La presente Convención no excluye ninguna jurisdicción penal adicional ejercida de conformidad con las leyes nacionales.

Artículo 10

Cada Estado Parte en cuyo territorio se encuentre una persona de la que se supone que ha cometido un delito de desaparición forzada, si, tras examinar la información de que dispone, considera que las circunstancias lo justifican, procederá a la detención de dicha persona o tomará otras medidas legales necesarias para asegurar su presencia.

La detención y demás medidas se llevarán a cabo de conformidad con las leyes de tal Estado y se mantendrán solamente por el período que sea necesario a fin de asegurar su presencia en el marco de un procedimiento penal, de entrega o de extradición.

El Estado Parte que haya adoptado las medidas contempladas en el párrafo 1 del presente artículo procederá inmediatamente a una investigación preliminar o averiguación de los hechos.

Informará a los Estados Partes a los que se hace referencia en el párrafo 1 del artículo 9, sobre las medidas adoptadas en aplicación del párrafo 1 del presente artículo, especialmente sobre la detención y las circunstancias que la justifican, y sobre las conclusiones de su investigación preliminar o averiguación, indicándoles si tiene intención de ejercer su jurisdicción.

La persona detenida de conformidad con el párrafo 1 del presente artículo podrá

beharrezko neurriak hartuko ditu, bere jurisdikzioa berrezartzeko derrigorreko desagertzeari buruzko delituen gainean, ustezko delitugilea bere jurisdikziopeko edozein lurraldetan dagoenean, salbu eta estatu horrek ustezko delitugilea beste estatu batera estraditatzan duenean edo beste estatu baten esku uzten duenean, nazioarteko betebeharrekin bat etorritik, edo nazioarteko zigor-jurisdikzio batera bidaltzen duenean, horren eskumena aitortzeagatik.

Konbentzio honek ez du bazter uzten lege nazionalekin bat etorritik gauzatutako zigor-jurisdikzioetarik bat bera ere.

10. artikulua

Ustez derrigorreko desagertzearen delitua egin duen pertsona estatu alderdi bateko lurraldean badago, estatu alderdi horrek, eskuartean duen informazioa aztertu ondoren, ulertzen badu inguruabarrek hala justifikatzen dutela, pertsona hori atxilotuko du edo legezko bestelako lege-neurri batzuk hartuko ditu, pertsona horren presentzia ziurtatzeko.

Atxiloketa eta gainerako neurriak gauzatuko dira estatu horretako legeekin bat etorritik, eta halakoei eutsiko zaie pertsona horren presentzia, prozedura penalean, berau beste estatu baten esku uzteko prozeduran edo estradizio-prozeduran, ziurtatzeko behar den epealdian bakarrik.

Artikulu honetako 1. paragrafoko neurriak hartu dituen estatu alderdiak berehala ekingo dio egitateen aurre-ikerketari edo azterketari.

Artikulu honen 1. paragrafoa aplikatzearen ondorioz zein neurri hartu eta neurri horien berri emango die 9. artikuluko 1. paragrafoak aipatu estatu alderdiei, bereziki, atxiloketaren eta hori justifikatzen duten inguruabarren berri, eta aurre-ikerketaren edo azterketaren emaitzen berri, bere jurisdikzioa ezartzeko asmoa duenean hori ere zehaztuko diela.

Artikulu honetako 1. paragrafoarekin bat etorritik atxilotutako pertsona berehala

comunicarse inmediatamente con el representante correspondiente del Estado de su nacionalidad que se encuentre más próximo o, si se trata de un apátrida, con el representante del Estado en que habitualmente reside.

Artículo 11

El Estado Parte en el territorio de cuya jurisdicción sea hallada la persona de la cual se supone que ha cometido un delito de desaparición forzada, si no procede a su extradición, o a su entrega a otro Estado conforme a sus obligaciones internacionales, o a su transferencia a una instancia penal internacional cuya jurisdicción haya reconocido, someterá el caso a sus autoridades competentes para el ejercicio de la acción penal.

Dichas autoridades tomarán su decisión en las mismas condiciones que las aplicables a cualquier delito común de carácter grave, de acuerdo con la legislación de tal Estado.

En los casos previstos en el párrafo 2 del artículo 9, el nivel de las pruebas necesarias para el enjuiciamiento o inculpación no será en modo alguno menos estricto que el que se aplica en los casos previstos en el párrafo 1 del artículo 9.

Toda persona investigada en relación con un delito de desaparición forzada recibirá garantías de un trato justo en todas las fases del procedimiento.

Toda persona sometida a juicio por un delito de desaparición forzada gozará de las garantías judiciales ante una corte o un tribunal de justicia competente, independiente e imparcial, establecido por la ley.

Artículo 12

Cada Estado Parte velará por que toda persona que alegue que alguien ha sido sometido a desaparición forzada tenga derecho a denunciar los hechos ante las autoridades competentes, quienes examinarán rápida e imparcialmente la denuncia y, en su caso, procederán sin demora a realizar una investigación exhaustiva e imparcial.

Se tomarán medidas adecuadas, en su caso, para asegurar la protección del

komunikatu ahal izango da bere naziotasunaren araberrako estatuko ordezkarien artean gertuen dagoenarekin edo, apatrida bada, ohikotasunez zein estatutan izan bizilekua eta estatu horretako ordezkariarekin.

11. artikulua

Ustez derrigorreko desagertzearen delitua egin duen pertsona zein estatu alderdiren jurisdikzioko lurraldetan aurkitu eta estatu alderdi horrek ez badu pertsona hori estradititzen, edo beste estatu baten esku uzten, nazioarte-mailan dituen betebeharrekin bat etorritik, edo nazioarteko zigor-auzitegi baten esku uzten, horren jurisdikzioa aitortzeagatik, kasua bere agintari eskudunen mende utziko du, akzio penala egikari dadin.

Agintari horiek euren erabakia hartuko dute, edozein delitu astuni aplikatu ohi zaizkion baldintza berberetan, estatu horretako legeriarekin bat etorritik.

9. artikuluko 2 paragrafoan jasotako kasuetan, epaitzeko edo erruztatzeko behar diren frogen maila ez da izango 9. artikuluko 1. paragrafoko kasuetan aplikatzen den maila baino hertsitasun gutxiagokoa.

Derrigorreko desagertzearen delitua dela bide ikertutako pertsona orok bidezko tratua jasotzeko bermeak izango ditu prozedurako fase guztietan.

Derrigorreko desagertzearen delituagatik epaitu behar den pertsona orok berme judizialak izango ditu, legeak ezarritako justizia-gorte edo -auzitegi eskudun, independente eta inpartzialean.

12. artikulua

Estatu alderdi bakoitzak zainduko du, bateren batek derrigorreko desagertzea nozitu duela alegatzen duen pertsona orok eskubidea izatea, egitateak salatzen agintari eskudunen aurrean; agintari horiek arin eta inpartzialtasunez aztertuko dute salaketa, eta, hala denean, atzerapenik gabe ekingo diote ikerketa zehatz eta inpartziala gauzatzeari.

Hala denean, neurri egokiak hartuko dira, ziurtatzeko salatzailaren, lekukoen,

denunciante, los testigos, los allegados de la persona desaparecida y sus defensores, así como de quienes participen en la investigación, contra todo maltrato o intimidación en razón de la denuncia presentada o de cualquier declaración efectuada.

Siempre que haya motivos razonables para creer que una persona ha sido sometida a desaparición forzada, las autoridades a las que hace referencia el párrafo 1 iniciarán una investigación, aun cuando no se haya presentado ninguna denuncia formal.

Los Estados Partes velarán para que las autoridades mencionadas en el párrafo 1 del presente artículo:

a) Dispongan de las facultades y recursos necesarios para llevar a cabo eficazmente la investigación, inclusive el acceso a la documentación y demás informaciones pertinentes para la misma;

b) Tengan acceso, previa autorización judicial si fuera necesario emitida a la mayor brevedad posible, a cualquier lugar de detención y cualquier otro lugar donde existan motivos razonables para creer que pueda encontrarse la persona desaparecida.

Cada Estado Parte tomará las medidas necesarias para prevenir y sancionar los actos que obstaculicen el desarrollo de las investigaciones.

En particular, deberán garantizar que las personas de las que se supone que han cometido un delito de desaparición forzada no estén en condiciones de influir en el curso de las investigaciones, ejerciendo presiones y actos de intimidación o de represalia sobre el denunciante, los testigos, los allegados de la persona desaparecida y sus defensores, así como sobre quienes participan en la investigación.

Artículo 13

A efectos de extradición entre Estados Partes, el delito de desaparición forzada no será considerado delito político, delito conexo a un delito político ni delito inspirado en motivos políticos.

desagertutako pertsonaren senideen eta pertsona horren defendatzaileen babesa, bai eta ikerketan parte hartzen dutenen babesa ere, tratatu txarren edo larderiaren aurka, halakoak direnean aurkeztutako salaketaren edo egindako edozein adierazpenen ondorio.

Zentzuzko arrazoiak daudenean, pertsona batek derrigorreko desagertzea pairatu duela uste izateko, 1. paragrafoan aipatutako agintariak ikerketa hasiko dute, inolako salaketa formalik aurkeztu ez bada ere.

Estatu alderdiek zainduko dute artikuluko honetako 1. paragrafoko agintariak:

a) Ikerketa eragingarritasunez gauzatzeko ahalmenak eta baliabideak izatea, baita ikerketa horretarako egoki diren agiriak eta gainerako informazioa lortzeko ere;

b) Sarrera izatea, alde zurretik agintari judicialak hori baimenduta, hala behar denean, eta baimen hori ahalik azkarren emanik, edozein atxilotze-tokitan eta desagertutako pertsona egon daitekeen beste edozein tokitan, horretarako zentzuzko arrazoiak daudenean.

Estatu alderdi bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu, ikerketen garapena oztopatzen dituzten egintzak prebenitu eta zehatzeko.

Bereziki, bermatu beharko dute, ustez derrigorreko desagertzearen delitua egin duten pertsonen eraginik ez izatea aribideko ikerketetan, presioak eta larderia-nahiz errepresalia-egintzak gauzatu, salatzaile, lekuko, desagertutako pertsonaren senide eta pertsona horren defendatzaileen aurka, bai eta ikerketan parte hartzen dutenen aurka ere.

13. artikulua

Estatu alderdien arteko estradizio-ondoretarako, derrigorreko desagertzearen delitua ez da izango delitu politikoa, delitu politikoari lotutako delitua, ezta arrazoi politikoetan oinarritutako delitua ere.

En consecuencia, una solicitud de extradición fundada en un delito de este tipo no podrá ser rechazada por este único motivo.

El delito de desaparición forzada estará comprendido de pleno derecho entre los delitos que den lugar a extradición en todo tratado de extradición celebrado entre Estados Partes antes de la entrada en vigor de la presente Convención.

Los Estados Partes se comprometen a incluir el delito de desaparición forzada entre los delitos susceptibles de extradición en todo tratado de extradición que celebren entre sí con posterioridad.

Cada Estado Parte que subordine la extradición a la existencia de un tratado, si recibe una solicitud de extradición de otro Estado Parte con el que no tiene tratado al respecto, podrá considerar la presente Convención como la base jurídica necesaria para la extradición en lo relativo al delito de desaparición forzada.

Los Estados Partes que no subordinen la extradición a la existencia de un tratado reconocerán el delito de desaparición forzada como susceptible de extradición entre ellos mismos.

La extradición estará subordinada, en todos los casos, a las condiciones previstas por el derecho del Estado Parte requerido o por los tratados de extradición aplicables, incluidas, en particular, las condiciones relativas a la pena mínima exigida para la extradición y a los motivos por los cuales el Estado Parte requerido puede rechazar la extradición, o sujetarla a determinadas condiciones.

Ninguna disposición de la presente Convención debe interpretarse en el sentido de obligar al Estado Parte requerido a que conceda la extradición si éste tiene razones serias para creer que la solicitud ha sido presentada con el fin de procesar o sancionar a una persona por razones de sexo, raza, religión,

Ondorenez, horrelako delitu-mota batean oinarritutako estradizio-eskabidea ezin izango da ukatu arrazoi horregatik bakarrik.

Derrigorreko desagertzearen delitua zuzenbide osoz bilduko da estradizioa erortzen duten delituen artean, konbentzio hau indarrean jarri aurretik estatu alderdien artean egindako estradizio-tratatu guztietan.

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, derrigorreko desagertzearen delitua biltzeko estradizioa erator dezaketen delituen artean, euren artean gerogarrenean egin ditzaketen estradizio-tratatu guztietan.

Estatu alderdi batentzat nahitaezkoa bada tratatu bat izatea estradizioa gauzatu ahal izateko, estatu horrek beste estatu alderdi batetik jasotzen duenean estradizio-eskabide bat, horrekin halako trataturik izan gabe, orduan lehenengo estatu horrek konbentzio hau baliatu ahal izango du, behar adinako oinarri juridiko gisa, estradizioa gauzatzeko, derrigorreko desagertzearen delituari dagokionez.

Estradizioa gauzatu ahal izateko baldintza gisa tratatu bat izatea ezartzen ez duten estatu alderdiek derrigorreko desagertzearen delitua aitortuko dute, euren artean estradizioa gauzatzea ahalbidetzen duen delitu moduan.

Edozein kasutan, estradizioa egongo da eskabidea zein estatu alderdik jaso eta estatu alderdi horren zuzenbideak edo estradizio-tratatu aplikagarriak ezarri baldintzen mende, baldintza horien artean direla, bereziki, estradizioa gauzatzeko galdatzen den gutxieneko zigorra eta eskabidea zein estatu alderdik jaso eta estatu horren arrazoiak, estradizioa ukatzeko edo estradizio horri baldintza jakin batzuk ezartzeko.

Konbentzio honetako xedapenak ezin dira interpretatu eskabidea jaso duen estatu alderdia estradizioa aitortzera behartzeko, baldin eta estatu horrek pisuzko arrazoiak baditu uste izateko eskabidea aurkeztu dela pertsona bat auzipetu edo zehatzeko asmoarekin, sexua, arraza, erlijioa, naziotasuna, etnia-jatorria, iritzi politikoak

nacionalidad, origen étnico, opiniones políticas o pertenencia a un determinado grupo social, o si, al aceptar la solicitud, se causara un daño a esta persona por cualquiera de estas razones.

Artículo 14

Los Estados Partes se prestarán todo el auxilio judicial posible en lo que respecta a cualquier procedimiento penal relativo a un delito de desaparición forzada, inclusive el suministro de todas las pruebas necesarias para el proceso que obren en su poder.

El auxilio judicial estará subordinado a las condiciones previstas en el derecho interno del Estado Parte requerido o en los tratados de cooperación judicial aplicables, incluidos, en particular, los motivos por los que el Estado Parte requerido puede denegar dicho auxilio o someterlo a determinadas condiciones.

Artículo 15

Los Estados Partes cooperarán entre sí y se prestarán todo el auxilio posible para asistir a las víctimas de las desapariciones forzadas, así como en la búsqueda, localización y liberación de las personas desaparecidas y, en caso de fallecimiento, en la exhumación, la identificación de las personas desaparecidas y la restitución de sus restos.

Artículo 16

Ningún Estado Parte procederá a la expulsión, devolución, entrega o extradición de una persona a otro Estado cuando haya razones fundadas para creer que estaría en peligro de ser sometida a una desaparición forzada.

A los efectos de determinar si existen esas razones, las autoridades competentes tendrán en cuenta todas las consideraciones pertinentes, inclusive, cuando proceda, la existencia, en el Estado de que se trate, de un cuadro de violaciones sistemáticas graves, flagrantes o masivas de los derechos humanos o violaciones graves del derecho internacional humanitario.

Artículo 17

edo gizarte-talde jakin baten kide izatea dela bide, edo eskabide hori onartzean, pertsona horri kalteren bat eragingo zaiola, arrazoi horietarik edozeinengatik.

14. artikulua

Estatu alderdiek ahalik laguntza handiena eskainiko diote elkarri, derrigorreko desagertzearen delituari buruzko prozedura penalei dagokienez, laguntza horretara biltzen dela prozesurako beharrezkoak diren frogak guztiak ematea ere, halakoak euren eskuetan badaude.

Laguntza judiziala egongo da eskabidea zein estatu alderdik jaso eta estatu alderdi horren barne zuzenbideak edo lankidetzak judizialeko tratatu aplikagarriek ezarri baldintzen mende, baldintza horien artean direla, bereziki, eskabidea jaso duen estatu alderdiaren arrazoiak estradizioa ukatzeko edo estradizio horri baldintza jakin batzuk ezartzeko.

15. artikulua

Estatu alderdiak euren artean lankidetzan arituko dira, eta ahalik laguntza gehiena emango diote elkarri, derrigorreko desagertzeen biktimei laguntzeko, bai eta desagertutako pertsonak bilatu, lokalizatu eta askatzeko ere, eta, horien heriotza gertatzen denean, gorpuak lurretik atera, identifikatu eta itzultzeko.

16. artikulua

Estatu alderdietarik inork ez du pertsona bat beste estatu batera kanporatu, itzuli edo estraditatu, oinarritutako arrazoen arabera uste denean pertsona horrek derrigorreko desagertzea jasateko arriskua izan dezakeela.

Arrazoi horiek ote dauden zehazteko, agintari eskudunek kontuan hartuko dituzte egoki diren inguruabar guztiak, baita, bidezkoa denean, kasuan kasuko estatuan egoera iraunkorra izatea, giza eskubideak modu sistematikoan, larrian, ageri-agerikoan edo ugarian urratzearen inguruan edo nazioarteko zuzenbide humanitarioa modu larrian urratzearen inguruan.

17. artikulua

Nadie será detenido en secreto.

Sin perjuicio de otras obligaciones internacionales del Estado Parte en materia de privación de libertad, cada Estado Parte, en su legislación:

- a) Establecerá las condiciones bajo las cuales pueden impartirse las órdenes de privación de libertad;
- b) Determinará las autoridades que estén facultadas para ordenar privaciones de libertad;
- c) Garantizará que toda persona privada de libertad sea mantenida únicamente en lugares de privación de libertad oficialmente reconocidos y controlados;
- d) Garantizará que toda persona privada de libertad sea autorizada a comunicarse con su familia, un abogado o cualquier otra persona de su elección y a recibir su visita, con la sola reserva de las condiciones establecidas por la ley, y en el caso de un extranjero, a comunicarse con sus autoridades consulares, de conformidad con el derecho internacional aplicable;
- e) Garantizará el acceso de toda autoridad e institución competentes y facultadas por la ley a los lugares de privación de libertad, si es necesario con la autorización previa de una autoridad judicial;
- f) Garantizará en cualquier circunstancia a toda persona privada de libertad y, en caso de sospecha de desaparición forzada, por encontrarse la persona privada de libertad en la incapacidad de ejercer este derecho, a toda persona con un interés legítimo, por ejemplo los allegados de la persona privada de libertad, su representante o abogado, el derecho a interponer un recurso ante un tribunal para que éste determine sin demora la legalidad de la privación de libertad y ordene la liberación si dicha privación de libertad fuera ilegal.

Cada Estado Parte asegurará el establecimiento y el mantenimiento de uno o varios registros oficiales y/o expedientes

Inor ez da atxilotuko sekretupean.

Estatu alderdiek askatasunaz gabetzeari dagokionez nazioartean dituzten beste betebeharrak batzuei kalterik egin gabe, estatu alderdi bakoitzak, bere legerian:

- a) Askatasunaz gabetzeko aginduak eman ahal izateko baldintzak ezarriko ditu;
- b) Askatasun-gabetzeak agintzeko ahalmenak dituzten agintariak zehaztuko ditu;
- c) Bermatuko du askatasunaz gabetutako pertsona oro izatea askatasunaz gabetzeko modu ofizialean aitortu eta kontrolatutako tokietan bakarrik;
- d) Bermatuko du askatasunaz gabetutako pertsona orok baimena izatea, familiarekin, abokatu batekin edo berak aukeratutako beste edozein pertsonarekin komunikatzeko, eta horien bisita izateko, horretarako baldintza bakarrak legeak ezarritakoak izan daitezkeela, eta atzeritar baten kasuan, bere kontsuletzeko agintariekin komunikatzeko, nazioarteko zuzenbide aplikagarriarekin bat etorritik;
- e) Bermatuko du agintari eta erakunde guztiak, halakoak eskudunak eta legeak ahalbidetutakoak direnean, askatasunaz gabetzeko tokietan sartzea, aldez aurretik agintaritzaren baimena lortuta, hala behar izanez gero;
- f) Edozein inguruabarretan, auzitegi batean errekurtsioa jartzeko eskubidea bermatuko die, askatasunaz gabetutako pertsona guztiei, eta, derrigorreko desagertzea dagoela uste denean, askatasunaz gabetutako pertsona eskubide hori egikaritzeko ezinduta egoteagatik, interes legitimoa duten pertsona guztiei, esaterako, askatasunaz gabetutako pertsonaren senideei, horren ordezkariari edo abokatuari, auzitegi horrek atzerapenik gabe erabaki dezan askatasunaz gabetzearen legezkotasunari buruz, eta pertsona hori aske uztea agin dezan, askatasun-gabetze hori legearen aurkakoa izango balitz.

Estatu alderdi bakoitzak ziurtatuko du, askatasunaz gabetutako pertsonen dagokienez, erregistro ofizial edota

actualizados de las personas privadas de libertad, que bajo requerimiento serán rápidamente puestos a disposición de toda autoridad judicial o de toda otra autoridad o institución competente de acuerdo con la legislación nacional o cualquier instrumento jurídico internacional relevante del que el Estado sea Parte.

Esa información contendrá al menos:

- a) La identidad de la persona privada de libertad;
- b) El día, la hora y el lugar donde la persona fue privada de libertad y la autoridad que procedió a la privación de libertad;
- c) La autoridad que decidió la privación de libertad y los motivos de ésta;
- d) La autoridad que controla la privación de libertad;
- e) El lugar de privación de libertad, el día y la hora de admisión en el mismo y la autoridad responsable de dicho lugar;
- f) Los elementos relativos a la integridad física de la persona privada de libertad;
- g) En caso de fallecimiento durante la privación de libertad, las circunstancias y causas del fallecimiento y el destino de los restos de la persona fallecida;
- h) El día y la hora de la liberación o del traslado a otro lugar de detención, el destino y la autoridad encargada del traslado.

Artículo 18

Sin perjuicio de los artículos 19 y 20, cada Estado Parte garantizará a toda persona con un interés legítimo en esa información, por ejemplo los allegados de la persona privada de libertad, su representante o abogado, el acceso, como mínimo, a las informaciones siguientes:

- a) La autoridad que decidió la privación de libertad;
- b) La fecha, la hora y el lugar en que la persona fue privada de libertad y admitida en un lugar de privación de libertad;
- c) La autoridad que controla la privación de

eguneratutako espediente bat edo batzuk ezarri eta iraunaraztea; halakoak, agindeiaren bidez, berehala jarriko dira agintari judizialen edo bestelako agintari edo erakunde eskudunen esku, bat etorritz legeria nazionalarekin edo nazioartean garrantzitsuak diren agiri juridikoetarik edozeinekin, estatua horietan alderdi denean.

Informazio horretara bilduko dira gutxienez:

- a) Askatasunaz gabetutako pertsonaren nortasuna;
- b) Pertsona askatasunaz gabetutako eguna, ordua eta tokia, eta pertsona hori askatasunaz gabetu zuen agintaria;
- c) Askatasun-gabetzea erabaki zuen agintaria eta askatasun-gabetze horren arrazoiak;
- d) Askatasun-gabetzea kontrolatzen duen agintaria;
- e) Askatasunaz gabetuta egoteko tokia, toki horretan onartua izateko eguna eta ordua, eta toki horretako agintari arduraduna;
- f) Askatasunaz gabetutako pertsona pribatuaren osotasun fisikoaren osagaiak;
- g) Askatasun-gabetzeak iraun bitartean heriotza gertatuz gero, heriotzaren inguruabarrak eta arrazoiak, eta gorpuaren destinoa;
- h) Pertsona askatzeko eguna eta ordua edo atxilotze-tokiz aldatzearenak, destinoa eta tokiz aldatzeaz arduratutako agintaria.

18. artikulua

19 eta 20. artikuluei kalterik egin gabe, estatu alderdi bakoitzak informazio horri begira interes legitimoa duten pertsona guztiei, esaterako, askatasunaz gabetutako pertsonaren senideei, horren ordezkariari edo abokatuari, bermatuko die, gutxienez, hurrengoen berri izatea:

- a) Askatasun-gabetzea erabaki zuen agintaria;
- b) Pertsona askatasunaz gabetu zeneko eta hori askatasunaz gabetzeko tokian onartua izan zeneko data, ordua eta tokia;
- c) Askatasun-gabetzea kontrolatzen duen

libertad;

d) El lugar donde se encuentra la persona privada de libertad y, en caso de traslado hacia otro lugar de privación de libertad, el destino y la autoridad responsable del traslado;

e) La fecha, la hora y el lugar de la liberación;

f) Los elementos relativos al estado de salud de la persona privada de libertad;

g) En caso de fallecimiento durante la privación de libertad, las circunstancias y causas del fallecimiento y el destino de los restos.

Se adoptarán, llegado el caso, medidas adecuadas para garantizar la protección de las personas a las que se refiere el párrafo 1 del presente artículo, así como de quienes participen en la investigación, contra cualquier maltrato, intimidación o sanción en razón de la búsqueda de informaciones sobre una persona privada de libertad.

Artículo 19

Las informaciones personales, inclusive los datos médicos o genéticos, que se recaben y/o transmitan en el marco de la búsqueda de una persona desaparecida no pueden ser utilizadas o reveladas con fines distintos de dicha búsqueda.

Ello es sin perjuicio de la utilización de esas informaciones en procedimientos penales relativos a un delito de desaparición forzada, o en ejercicio del derecho a obtener reparación.

La recopilación, el tratamiento, el uso y la conservación de informaciones personales, inclusive datos médicos o genéticos, no debe infringir o tener el efecto de infringir los derechos humanos, las libertades fundamentales y la dignidad de la persona.

Artículo 20

Únicamente en el caso en que una persona esté bajo protección de la ley y la privación de libertad se halle bajo control judicial, el derecho a las informaciones previstas en el artículo 18 podrá limitarse, sólo a título excepcional, cuando sea estrictamente

agintaria;

d) Askatasunaz gabetutako pertsona dagoen tokia eta, pertsona hori askatasunaz gabetzeko beste toki batera aldatuz gero, destinoa eta aldaketaren agintari arduraduna;

e) Pertsona aske uzteko data, ordua eta tokia;

f) Askatasunaz gabetutako pertsona pribatuaren osasun-egoerari buruzko osagaiak;

g) Askatasun-gabetzeak iraun bitartean heriotza gertatuz gero, heriotzaren inguruabarrak eta arrazoiak, eta gorpuaren destinoa.

Hala denean, neurri egokiak hartuko dira, bermatzeko artikulua honetako 1. paragrafoak aipatu pertsonen babes, bai eta ikerketan parte hartzen duten pertsonena ere, tratatu txar, larderia edo zehapen guztien aurka, halakoak eratoritzen direnean askatasunaz gabetutako pertsona bati buruzko informazioa bilatzen aritzeagatik.

19. artikulua

Desagertutako pertsona bat bilatzeko ahaleginetan bildu edota bidalitako informazio pertsonalak, barnean direla mediku- edo genetika-datuak ere, ezin dira erabili edo ezagutarazi bilaketa horretarako helburuetatik kanpo.

Hori gorabehera, informazio horiek erabili ahal izango dira derrigorreko desagertzearen delituari buruzko prozedura penaletan, edo konponketa lortzeko eskubidea egikaritzean.

Informazio pertsonala bildu, tratatu, erabili eta gordetzen denean, baita mediku- edo genetika-datuak ere, horrek ezin ditu, berez edo horren ondorioz giza eskubideak, oinarrizko askatasunak eta pertsonaren duintasuna urratu.

20. artikulua

Pertsona bat legearen babesaren mende egon eta askatasun-gabetzea kontrol judizialaren mende dagoenean bakarrik murriztu ahal izango da 18. artikuluan jasotako informazioen berri izateko eskubidea, salbuespen-titularekin, legeak

necesario en virtud de restricciones previstas por la ley, y si la transmisión de información perjudicase la intimidad o la seguridad de la persona o el curso de una investigación criminal, o por otros motivos equivalentes previstos por la ley, y de conformidad con el derecho internacional aplicable y con los objetivos de la presente Convención.

En ningún caso se admitirán limitaciones al derecho a las informaciones previstas en el artículo 18 que puedan constituir conductas definidas en el artículo 2 o violaciones del párrafo 1 del artículo 17.

Sin perjuicio del examen de la legalidad de una privación de libertad, el Estado Parte garantizará a las personas a las que se refiere el párrafo 1 del artículo 18, el derecho a un recurso judicial rápido y efectivo para obtener sin demora las informaciones previstas en esa disposición.

Ese derecho a un recurso no podrá ser suspendido o limitado bajo ninguna circunstancia.

Artículo 21

Cada Estado Parte tomará las medidas necesarias para que la liberación de una persona se efectúe con arreglo a modalidades que permitan verificar con certeza que ha sido efectivamente puesta en libertad.

Los Estados Partes adoptarán asimismo las medidas necesarias para garantizar la integridad física y el pleno ejercicio de sus derechos a las personas en el momento en que sean liberadas, sin perjuicio de las obligaciones a las que puedan estar sujetas en virtud de la legislación nacional.

Artículo 22

Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 6, cada Estado Parte tomará las medidas necesarias para prevenir y sancionar las siguientes prácticas:

a) Las dilaciones o la obstrucción de los recursos previstos en el inciso f) del párrafo 2 del artículo 17 y el párrafo 2 del artículo 20;

jasotako murrizketen ondorioz guztiz beharrezkoa bada, eta informazio hori hedatzearen ondorioz pertsonaren intimitateari nahiz segurtasunari edo ikerketa kriminal baten aribideari kalte egiten bazaio, edo legeak jasotako arrazoi baliokideengatik, eta nazioarteko zuzenbide aplikagarriarekin eta konbentzio honetako helburuekin bat etorritz.

Inola ere ez dira onartuko 18. artikuluan jasotako informazioen berri izateko eskubidearen murrizketak, halakoek 2. artikuluan definitutako jokabideak edo 17. artikuluko 1. paragrafoko urratzeak erator ditzaketenean.

Askatasun-gabetzearen legezkotasuna aztertzeari kalterik egin gabe, estatu alderdiak 18. artikuluko 1. paragrafoak aipatu pertsonen bermatuko die errekurto judicial azkar eta eragingarrirako eskubidea, xedapen honetan jasotako informazioak atzerapenik gabe jaso ditzaten.

Errekurtsorako eskubide hori ezin da eten edo murriztu inolako inguruabarrengatik.

21. artikulua

Estatu alderdi bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu, pertsona bat aske utzi behar denean, askatze hori gauza dadin pertsona hori benetan aske utzi dela egiaztatzen duten modalitateekin bat etorritz.

Estatu alderdiek, orobat, beharrezko neurriak hartuko dituzte, pertsonen bermatzeko, aske uzteko unean, osotasun fisikoa eta euren eskubideen erabateko egikaritza, kalterik egin gabe pertsona horiek legeria nazionalaren ondorioz izan ditzaketen betebeharrei.

22. artikulua

6. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, estatu alderdi bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu, hurrengo eginerak prebenitu eta zehatzeko:

a) 17. artikuluko 2. paragrafoaren f) idatzatiko eta 20. artikuluko 2. paragrafoko errekurtoak atzeratzea edo oztopatzea;

b) El incumplimiento de la obligación de registrar toda privación de libertad, así como el registro de información cuya inexactitud el agente encargado del registro oficial o los expedientes oficiales conocía o hubiera debido conocer;

c) La negativa a proporcionar información sobre una privación de libertad o el suministro de información inexacta, cuando se cumplen las condiciones establecidas por la ley para proporcionar dicha información.

Artículo 23

Cada Estado Parte velará por que la formación del personal militar o civil encargado de la aplicación de la ley, del personal médico, de los funcionarios y de otras personas que puedan intervenir en la custodia o tratamiento de las personas privadas de libertad, incluya la enseñanza y la información necesarias sobre las disposiciones pertinentes de la presente Convención, a fin de:

- a) Prevenir la participación de esos agentes en desapariciones forzadas;
- b) Resaltar la importancia de la prevención y de las investigaciones en materia de desapariciones forzadas;
- c) Velar por que se reconozca la urgencia de la resolución de los casos de desaparición forzada.

Cada Estado Parte prohibirá las órdenes o instrucciones que dispongan, autoricen o alienten las desapariciones forzadas.

Cada Estado Parte garantizará que la persona que rehúse obedecer una orden de esta naturaleza no sea sancionada.

Cada Estado Parte tomará las medidas necesarias para que, cuando las personas a las que se refiere el párrafo 1 del presente artículo tengan razones para creer que se ha producido o está a punto de producirse una desaparición forzada, informen a sus superiores y, cuando sea necesario, a las autoridades u órganos de control o de revisión competentes.

b) Askatasun-gabetze oro erregistratzeko betebeharra ez gauzatzea, bai eta informazioa erregistratzea ere, informazio horren zehaztugabetasuna ezagutzen duenean edo ezagutu beharko lukeenean erregistro ofizialaren edo espediente ofizialen arduradun den agenteak;

c) Askatasun-gabetze bati buruzko informazioa ukatzea edo informazio zehaztugabea ematea, informazio hori emateari dagokionez legeak ezarritako baldintzak betetzen direnean.

23. artikulua

Estatu alderdi bakoitzak zainduko du legea aplikatzeko ardura duten langile militar nahiz zibilen, medikuen, funtzionarioen eta askatasunaz gabetutako pertsonaren zaintzan edo tratamenduan parte har dezaketen beste pertsona batzuen prestakuntzak bere baitara biltzea konbentzio honetako kasuan kasuko xedapenei buruzko behar adina irakaskuntza eta informazio, hurrengo helbuetarako:

- a) Agente horien partaidetza prebenitzea derrigorreko desagertzeetan;
- b) Derrigorreko desagertzeen alorrean prebentzioak eta ikerketek duten garrantzia nabarmentzea;
- c) Derrigorreko desagertzeen kasuetan ebazpena presakoa dela aitor dadin zaintzea.

Estatu alderdi bakoitzak debekatuko ditu derrigorreko desagertzeak agintzen, baimentzen edo bultzatzen dituzten agindu edo jarraibideak.

Estatu alderdi bakoitzak bermatuko du halako izaerako agindua betetzeari ezezkoa ematen dion pertsona ez zehatzea.

